

IV DEIALDIA
DOKTOREGO BEKAK

DEIALDIAREN OINARRIAK

Onuradunak

Bekak **Goi-mailako Unibertsitate Tituludunentzat** dira, Doktorego Tesia kalitate edo ospe frogatua duten ikerketa-unitateetan (publiko nahiz pribatuetan) egin nahi badute.

Ingeniaritzako tituludunek bukatuta izan beharko dute Ikasketa Bukaerako Proiektua.

Beken diru-kopurua

Beka bakoitzaren diru-kopuru gordina 1.044,00 €-koa izango da hilean beka-egoeran prestatzen ari diren ikertzaileentzat.

Denboraldi horretan, beka-egoeran prestatzen ari den ikertzaileak eskubidea izango du bere garaian hartzeko bekari dagokion laguntza ekonomikoa, deialdi honetan ezarritako eran, baina lansari edo soldata izaerarik gabe, eta eskubidea izango du Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeko 63/2006 Errege Dekretuak Lehenengo Xedapen Gehigarrian 1. atalean ezarritakoaren arabera. Halaber, Errege Dekretu horren 6.e) artikuluan ezarritakoaren arabera, bekadunak bere gain hartu beharko ditu Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzearen ondorioz dagozkion betebeharrak.

Hirugarren urtetik aurrera eta Ikasketa Aurreratuen Diploma edo Fundazioak ezarritako agiri baliokidea lortu ondoren, praktikaldiko lan-kontratua egingo da bekadunaren eta Atxikitako Zentroaren artean, legez dagokion ordainsaria jasoko duelarik.

Doktorego Programan matrikulazioa bekaren lehen urtean egingo da nahitaez. Doktorego Programaren matrikula-tasen zenbatekoa %50 bekadunak ordainduko du eta %50 beka garatzen dueneko Zentroak. Praktikaldiko lan-kontratua izenpetzean, bere garaian Doktorego Ikastaroak egiteko ordaindu zuen matrikularen zenbatekoaren %50 ordainduko dio Zentroak bekadunari.

Beka honen gozamen aldian ezingo da beste bekarik, lansaririk edo ordainik hartu bere edo besteren kontura zerbitzuak emateagatik.

Bekaren garapena

Beka garatzeko, doktorego-ikastaroetara joan behar da, eta Doktorego Tesia egin behar da ikerketa-proiektu baten barruan.

Ikasketa Aurreratuen Diploma edo Fundazioak ezarritako agiri baliokidea ez lortzeak beka iraungitzeko arrazoia izan daiteke.

Bekadunak tutore bat izango du, Unibertsitateak izendatua, eta Doktorego Tesiaren zuzendari bat. Bi zeregin horiek pertsona bakar batek bete ditzake.

Doktorego Beken iraupena urtebetekoa izango da, baina luza daiteke, gehienez ere 4 urtera, Prestakuntzan ari diren Ikertzaileen Estatutuan ezarritakoaren arabera. Tesiaren defentsa 4 urte horiek igaro baino lehen egiten bada, Tesiaren defentsa egiten den hilabetean bukatuko da prestakuntza-programa.

Bekadunei beka garatzeko dagokien Zentroan 2006ko urriaren 20an hasi behar dute. Egun hori baino geroago sartzen badira Zentroan, diru-kopurua bekaren gozamen-hilabeteen arabera egokituko da.

Aparte utzita noiz hasten diren beka garatzeko dagokien Zentroan, bekaren lehen urtearen gozamen-aldia 2007ko urriaren 20an bukatutzat emango da.

Beka-urte bakoitza bukatzean Iñaki Goenaga – Zentro Teknologikoen Fundazioak bekadunari buruzko iritzia eskatuko dio Zentroari. Datu hori eta dagokion proiektuaren egoera funtsezkoak izango dira Beka berri-ala ez erabakitzeko.

Beken izaera

Deialdi honi urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuan ezarritakoa aplikatuko zaio.

Bekaren gozamen-baldintzak

Bekaduna programa garatzeko Zentroan sartzen denean hasiko da bekaz gozatzen ere; programa burutzera konprometituko da bekaduna eta Ikertegi edo Zentroko arauak betetzera beti, probetxu ona izan dezan beharrezko diren jarrera eta interesarekin.

Bekaren baldintzak betetzen ez badira, Fundazioak eskubidea izango du emandako diru-kopuruak itzultzea eskatzeko.

Prestakuntza Tesiaren zuzendariak gidatuko du, baina Fundazioak beti izango du ahalmena bekadunaren jardueraz kontrol orokorra egiteko.

Fundazioak eskubidea izango du, urteko edozein unetan, bekaduna egiten ari denaz txostena eskatzeko bekadunari berari edo Zentroari. Txosten hori ez bada aurkezten edota aurkeztutakoaz Fundazioak ebaluazio negatiboa egiten badu, laguntza edo beka eten egin daiteke berehala. Erabaki honek motibatua beharko du izan.

Beka betiko edota aldi baterako eteteko zio edo motiboak honako hauek izan daitezke:

- Bekaren prestakuntza-helburuak lortzeko ezintasuna.
- Bekari probetxurik ez ateratzea era nabarmenean.
- Diziplinarik eza.
- Tresneria eta gaiak behar bezala ez erabiltzea.
- Ikertegi edo Zentroko arauetikiko begirunerik eza.
- Isilpeko informazioa argitara ematea.

Bekadunek ondorengo eskubide eta betebeharrak izango dituzte:

- Beka garatzeagatik, deialdi honen oinarrietan ezarritako diru-kopurua hartuko dute.
- Bekaren edukiaz gain, prestakuntza gehigarria hartzeko aukera izango dute, diharduten Zentroko arauen arabera.
- Fundazioaren Idazkaritza Teknikoa bekadunen esanetara izango da beti, eskatzen diotenari erantzuteko.
- Beka garatzen ari diren Ikertegi edo Zentroko barne-araudia bete beharko dute.
- Isilpekotasunik zorrotzena izan behar dute ikerketa edo azterketa-gaiei buruz, bai bekaren gozamen-aldian eta bai bukatu ondoren, Zentroaren berariazko baimena beharko dutelarik horiek erabiltzeko edo/eta beste batzuei jakinarazteko.
- Bekan sartuta daude Doktorego Programako matrikula-tasak deialdi honetan ezarritakoaren arabera,
- Beka bukatzean, beren lan-egoeraren berri eman beharko diote Fundazioari.

Bekaren hirugarren urtearen hasieratik aurrera bekadunak egindakoaren ziurtagiria emango du Fundazioak.

Ikerketa dela-eta egindako argitalpen orotan, Iñaki Goenaga—Zentro Teknologikoen Fundazioa aipatu behar da. Argitalpenaren kopia bat Fundazioari bidali behar zaio, eta beste bat beka garatu deneko Zentroari.

Bekak eskatzea eta hautaketa-prozesua

Bekak eskatzeko baldintzak

Beka eskatzeko, beharrezkoa da Goi-mailako Unibertsitate Tituludun izatea (Ingeniaritzen kasuan, Ikasketa Bukaerako Proiektua bukatuta izatea).

Eskaerak aurkeztea

Beka-eskaerak 2006ko ekainaren 28tik uztailaren 28ra aurkeztu behar dira.

Fundazioaren web guneko Eskaera Inprimakiaren bidez egin behar dira eskaerak (www.fundacioncentrostecnologicos.org), non emango baita inprimakia egoki betetzeko behar den informazio guztia.

Hautaketa:

Fundazioak Epaimahai Kalifikatzailea izendatuko du beka emateko.

Ondorengo irizpideon arabera balioetsiko dira eskaerak:

- Espediente akademikoa
- Aukeran, hobe azken aldiko titulazioa
- Hizkuntzak jakitea
- Eskatzaileak aurkezten duen beste edozein merituz: ikasketa-bukaerako proiektuaren gaia, egindako lan teknikoak, ikasketak, etab.
- Bakoitzarekin egingo den elkarrizketa.

Hautaketa-prozesuaren lehenengo fasea, Fundazioaren web guneko eskaera-inprimakian eskatzaileak emandako informazioaren arabera bakarrik egingo da. Ondoren, agiri bidez frogatu beharko da emandako informazio guztia egiazkoa dela.

Hautaketa-prozesuaren barruan —nahitaezko betebeharra da— Epaimahaiak presentziazko elkarrizketa pertsonala egingo die beka eskatu dutenei.

Bekaren bat eman gabe geratzen bada edo deitutako beketan aldaketarik gertatzen bada, Fundazioak du eskubidea egoki iruditzen zaizkion erabakiak hartzeko, betiere deialdi hau bultzatzen duten arrazoiak kontuan hartuta.

Atzerriko titulazioek Estatuko titulazioekin duten baliokidetasuna Fundazioak ebaluatuko du.

Beka eskatze hutsak esan nahi du oinarri hauek onartzen direla, eta Iñaki Goenaga Zentro Teknologikoen Fundazioak erabakiko ditu sortzen diren zalantza eta gorabeherak.

Erregimen iragankorra

63/2006 Errege Dekretuan ezarritako xedapenen espiritua aurreko urteetako deialdietako doktorego-bekei aplikatzeko helburuarekin, Fundazioak ez ditu I, II eta III. deialdietako doktorego-bekak luzatuko 2006ko urriaren 20tik aurrera. Data horretan, aipaturiko deialdietako beka IV. deialdi honetako beka bihurtuko dira.

Doktorego-beka horien gozamen-aldia hau izango da: gehienezko 4 urteko gozamen-aldiari aurreko beka gozaturiko urteak kenduko zaizkio, eta geratzen zaien denboraldian IV. deialdi honetan finkaturiko eskubide eta betebeharrak izango dituzte.

Bekadunak 2 urte edo gehiagoz gozatu badu beka beste deialdi batean, hirugarren eta laugarren urterako aipaturiko praktikaldiko lan-kontratuaz baliatzeko nahitaezkoa izango da doktorego-ikastaroak eginak izatea eta Ikasketa Aurreratuen Diploma edo Fundazioak ezarritako agiri baliokidea lortuta izatea.

INFORMAZIOA:

- Iñaki Goenaga—Zentro Teknologikoen Fundazioan (Tel. 94 420 94 88)
- Ondorengo web orrian: www.fundacioncentrostecnologicos.org

Beka eskatze hutsak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du. Iñaki Goenaga—Zentro Teknologikoen Fundazioa arduratuko da sortzen diren gorabeherak konpontzeaz.

Fundazioak eskubidea izango du bidezko iruditzen zaizkion aldaketak egiteko “Doktorego Bekak” IV. Deialdiaren oinarri hauetan.